

ESKLABOTZA BERRIA



© Xabier Galarreta

Joxemik, besteak bezain zurbil eta zuhaitzenbor itxurako, nekez sinets zezakeen begien aurrean zeukana: bere aita Migel Angel enkante batean salgai gisa aurkeztua, burdinazko kate astun eta iraingarri bat lepotik zintzilik zuelarik. “Esklaboak gaituk!” hots egin zuen bere artean sinetsi ezinik eta zurturik.

Jende aurrean zabaltzen zen enkantean dozenaka gizon-emakume, adin guztietakoak, pilatzen ziren, enkanteko oholtzara noiz igoko zain. Noizean behin, zartailuaren hots izugarriak airea urratzen zuen eta segituan gizon edo emakume baten oihu lazgarria, gainerako esklabo gizarajoen adorea areago goibeldu eta txikitzen zuena.

Esklabotza, ustez desagerrarazia duela mende asko, gure Euskal Herri honetan kasik ezagutu ez genuen esklabotza, berriz ere errealtate bilakatua azaltzen zitzaigun begi aurrean, baina oraingoan ez beltz arrazako esklaboengan haragitua, baizik jende zuriarengan mamitua. Oraingoan esklaboak gu geu ginen, euskal herritarrok, Euskal Herrian betidanik bizi izan diren gizon-emakumeak, esklabotzaren atzaparkada mingarria sekula ezagutu ez zutenak. Historia kontrolatzerik ez dago, ordea. Eta horra hor frogarik onena: gure emazteak, gure gizonak, gure seme-alabak enkante batera ekarriak, dirukopururik eskuzabalena eskainiko duenaren zain, esklabotzari lotuta betiko, urrutiko etxalde, lantegi

edo meatzeren batean lehertu arte lan egitera behartuak. Euren egunak iraungi arte esklaboak baino ez dira izango eta jabe batek erabakiko du haien patua: bizitzen jarraitu behar duten edo hiltzeko ordua iritsi zaien, zortzi orduz edo hamazortzi orduz lanean ariko diren, emakumeak burdel batera bidaliko dituzten edo...

Esklaboak gu ginen. Esklaboen izenak jada ez ziren “Ama-butú” edo tankera horretako izen afrikarrak. Hori iragana zen. Orain esklabo berriek Joxemi, Mikel, Andoni, Haizea, Eukene eta mota horretako izenak zituzten. Euskal izenak! Nork esan behar ote zuen, noizbait gure jendea esklabo ikusiko genuela, azoketan salgai, abereen pare...

Bazirudien esklabotza beltz arrazakoen monopoloia zela. Bazirudien sufritzea –esklaboa izateagatik sufritzea– beti urrutiko herrialdeetan bakar-bakarrik gertatzen zela. Baina orain elkartasuna eskaintzea ez zen kontua; orain elkartasuna ez zen luxua, borondatezko jarrera hutsa... Orain esklabotzaren sufrimendua bazen halako patu kolektibo bat, iltzea urrikirik gabe kolpatzen duen mailua, barrutik marruskatzen zaituen egoera taiugabe, ulergaitza...

Azkeneko aldiz elkar agurtuko zuten senideak amildegirantz mutu jaisten ziren, begia lurretik apartatu ezinik, lotsaren eta ezerezaren jostailu. “Beraz, hori duk esklabotza”, pentsatzen zuen Joxemik. “Zer naiz ni une honetan? Zenbaki

bat? Salerosketa baten helburua? Baina, non geratzen da gizakia orduan? Ikusezina ote naiz tratulari hauentzat? Zergatik da hain zaila besteen larruazalean jartzea; nolatan ote da posible nire sufrimendua ez ikusteko bezain itsu izatea...?”. Zartailuak berriz ere beldurgarriro klask egin zuen, Joxemiren galdera guztiei erantzun nahian edo.

Galdera ugari etortzen zaizkizu burura, horrelako trantze batean egotea egokitu bazaizu. Senideengandik eta zure ohiko mundutik indarrez berezita, denbora luzea dago zure buruari galderak egiteko, eta are denbora luzeagoa alferrikako erantzunak bilatzen zure barne-espazio hutsa betetzen saiatzeko. Azken finean, hobe da, behin dena galduta dagoenean, gauzak diren bezala ez ikustea eta amaigabeko erantzunen labirintoan barrena galtzea. Zentzuduna izatea ez baita bertuterik, behintzat bere buruaren jabe ez denarentzat. Eta beraz esklaboak zorotasunean amiltzea eta buruzko gaixotasunetan ihesbide bat bilatzea ez da bat ere harrigarria, berez.

Gero, historia dago. “Zer historia mota izango ote da gurea?”, galde egiten zion Joxemik bere buruari. “Hemen gaudek, esklabo bihurtuta. Demagun laurehun urte barru askatasuna lortzen dugula, edo hobeto esan, esklabotza abolitzea lortzen dugula. Zer kontatuko diegu geure seme-alabei? Beren gurasoak, osaba-izebak, aitona-amonak, lehengusu-lehengusinak, herrikideak... esklaboak izan zirela? Jasaten genituen zigorren eta

umilazioen kontaketa zehatza ere egingo al diegu, guk pairatutako bidegabekeria gogoan betiko atxikita gera dakien?”

Joxemiren burutik igarotzen ziren galderak mota horretako galderak ziren. Eta ez zen bat ere erraza erantzutea. Azken finean, Joxemik zalantzan jartzen zuena zen benetan merezi ote zuen baldintza horietan historia baten jabe izatea. Ez al zen hobe izango egunen bateko belaunaldi askeei beren arbasoek pairatutako lotsa ezkutatzea eta ahal izanez gero guztien memoriatik ezabatzea...?

Batzuetan, oroimena ez da bertutea, akatsa baizik. Gainera, oso ongi dago memoria bizirik iraunarazteaz hitz egitea, baldin-eta hildakoen artean, galtzaile handien artean, egotea egokitu ez bazaizu. Eta neurri berean, oso ongi dago historiari buruz hitz egitea, baldin-eta historia hori irain jasanezinez beteta ez badago. Zeren laidoz josita egonez gero, orduan baliteke mota horretako historiari eustea merezi ez izatea, eta orduan historia ez da gurditik tiratzen duen indar bizia eta harrotasun-zioa, gurditik eta zamaberetik tiratzen duen giza espektro tamalgarri eta patetikoa baizik.

Hala ere, ezagutu beharra dago egoera bakoitza, jakiteko, ezen, geure barne-eremu geografiko-historikoan jasota dagoena baino ezin izango dugula inoiz ulertu, eta horren arabera gure esklabotza onartzera irits gintezke unea iritsita, bai, arrazoi praktikoengatik agian, biziraupen-

arrazoiengatik akaso... Gizakiak ahalmen itzela baitauka amets egiteko, eta amets egiten duen esklabo ez da esklabo, zeruan aske proiektatzen den pentsamendu hegalduna baizik.

“Historia... nork du historiaren beharrik, lepotik zintzilik burdinazko uztai bat daukaanean kate bati lotuta...?”, gogoeta egiten zuen Joxemik; eta barruko mina eta pozoia bere baitatik aterarazi nahi izan balitu bezala, txu egin zuen lurrera. Baina zaindaria ohartu zen, eta keinu hartan harrokeria eta matxinadarako keinua ikusi uste izan zuelarik, bi aldiz utzi zuen erortzen bere zartailuaren kolpea Joxemiren bizkarralde lehendik aski jipoituaren gainera, eta haren oihu minak, amorruzko alarauak, gainerako esklaboenekin egin zuen bat logika harrigarritz bezain nardagarritz.

“Gizabereak gaituk”. Horixe izan zen Joxemiren burutik igarotako azken esapidea. Gero, altzairuzko isiltasun bat. Ezerezak irentsita sentitu zen, flotatzen bezala, amildegi ikusezin batera jaurtita, historiaren mesprezua zartako baten gisan jasaten duen errefuxatuaren samin berberaz. Kinka horretan, zertarako hasi justizia aldarrikatzen...?